

ABUZTUAK 14 - 18



**Txupinazoa entzunda
zuñz jantzita aurrera
Lurgorrik egingo dio
bezperadarí harrera
kaleak erasoz bete
nahi dituztenen kaltera
ustelegi dauden saǵar
denak saskitik atera
jaietaz disfrutatzeko
zatoz ǵurekin batera
txikitik handiak sortzen
badakigunon artera
herri kontzientziak batu
dezala herria bera
noizbait heltzeko Gernika
aske (e)ta anitz batera.**



LILIBERTSO

ALKATEGAREN AGURRA

Jose María Gorión Etxebarrieta

Pozarren ospatuko ditugu Gernika-Lumoko jai hauek transmititzen duten poztasunagatik eta, batez ere, tradizio hauek kontserbatzeak gure kultura babesten laguntzen duelako. Belaunaldi berriekin landu dugun zerbait da: gure tradizioak iragana eta oraina lotzen dituen haria dira, nondik gatozen eta nor garen adierazten digute. Gernika-Lumoko jaiek, lotura sozialak sendotu eta elkartasuna sustatzeaz gain, nortasuna eta jarraikortasuna ematen digute.

Hain mundu aldakorrean, ingurumen-krisi baten erdian, gatazkak egunez egun areagotzen dituzten gerren erdian, gure tradizioak kontserbatu, defendatu eta sustatzeak erresistentziarako eta gizarte-kohesiorako espazioa eskaintzen digu; eta bide horretatik, gure balioek garai zail horietara egokitzen laguntzen digute. Praktika kultural horiek gabe gizarteek identitate-zentzua gal lezaket.

Badakigu tradizioak ez direla estatikoak: aldatu egin gara. Gaur egungo erronkak desberdinak dira. Hala ere, gure jai eta ohiturek egokitzeko gaitasuna izaten laguntzen digute. Ospakizun horiek biziberritu egin behar ditugu, sorrarazten diguten pozagatik ez ezik, nor garen gogorarazten digutelako.

Kulturak nahasteko eta identitateek indarra galtzeko joera dagoen munduan, tokiko tradizioak mantentzea eta biziberritzea baieztapen kulturalerako ekintza bihurtzen da.

Gure herriko jaietan modu aktiboan parte hartzera gonbidatzen zaituztet; gure tradizioak ospatzeko, gure kultura eta gure pertenezia-zentzua goraiatzeko, eta jai hauek anaitasunez eta herritarrekiko erantzukizunez bizitzeko.



Celebramos con entusiasmo estas fiestas de Gernika-Lumo por la alegría que transmiten y, sobre todo, porque conservar estas tradiciones ayuda a preservar nuestra cultura. Es algo que hemos venido trabajando con las nuevas generaciones: nuestras tradiciones son un hilo

conductor que conecta pasado y presente, nos dicen de dónde venimos y quienes somos. Las fiestas de Gernika-Lumo nos proporcionan un sentido de identidad y continuidad además de fortalecer los lazos sociales y fomentar la solidaridad.

En un mundo tan volátil, en medio de una crisis ambiental, de guerras que escalan el conflicto día a día, conservar, defender y promover nuestras tradiciones nos proporciona un espacio de resistencia y cohesión social donde nuestros valores nos ayudan a adaptarnos a estos tiempos difíciles. Sin estas prácticas culturales las sociedades podrían

perder el sentido de identidad. Sabemos que las tradiciones no son estáticas: hemos cambiado. Los retos actuales son distintos. Sin embargo, nuestras festividades y costumbres nos ayudan a tener capacidad de adaptación. Debemos revitalizar estas celebraciones, no solo por la alegría que nos traen, sino también porque nos recuerdan quienes somos.

En un mundo donde las culturas tienden a mezclarse y las identidades pueden diluirse, mantener y revitalizar las tradiciones locales se convierte en un acto de afirmación cultural.

Os invito a participar activamente en las fiestas de nuestro pueblo para celebrar nuestras tradiciones, exaltar nuestra cultura y nuestro sentido de pertenencia y vivir estas fiestas con fraternidad y responsabilidad ciudadana.



ABUZTUAK 14 - 18





JAI batzordea



Protokoloa

Aisi eta jai-
eremuetan eraso
matxisten aurrean
jardutekoa.



Gautxoria

Autobus zerbitzua
dohan.



Gune morea

Jai-giroko
eraso matxistei
buruzko
sentsibilizazio,
informazio eta arreta
gunea



Telefonoak

SOS DEIAK: 112

UDALTZAINGOA:

946 270 202

SATEVI (24h):

900 840 111



GUNE MOREA

**Eraso matxisten aurrean
sentsibilizatzeko,
informatzeko eta arreta
emateko gunea
23:00etatik- 06:00etara**

Abuztuak 10ean Lurgorriko jaietan.

**Abuztuak 14, 15, 16 eta 17
Andra Mari jaietan, txosnen inguruan**

GERNIKAKO GAUTXORIA

Zerbitzua orduro emango da 22:00etatik hurrengo eguneko 06:00etara, beti ere, Gernikako geltoki zentrolean hasi eta Lurgorri amaituz. Gaueko zerbitzuan, eskariaren arabera geldialdiak ezarriko dira emakumeentzat eta arriskuan sentitzen diren pertsonentzat, bakarrik bidaiatzen dutenean. Gidariari etxebizitzetatik gertu dagoen lekuren batean gelditzeko eskatu ahal izango diote, baldin eta autobusa ez bada ibilbidetik ateratzen eta irteera aurreko atetik egiten bada.

El servicio se prestará cada hora desde las 22:00h a las 6:00h del día siguiente empezando siempre en la estación central de Gernika y terminando en Lurgorri.

En el servicio nocturno se establecerá la parada a demanda para mujeres o personas que se sientan vulnerables y viajen solas. Podrán pedir al conductor que pare en algún lugar cercano a sus viviendas, siempre y cuando el autobús no se salga de la ruta y la salida se haga por la puerta delantera.



Protocolo

De actuación ante casos de agresiones machistas en espacio de ocio y festivos.



Gautxori

Servicio de autobús gratuito.



Gune morea

Espacio de sensibilización, información y atención ante agresiones machistas situado en el entorno festivo



Telefonos

SOS DEIAK: 112

POLICIA MUNICIPAL:
946 270 202

SATEVI (24h):
900 840 111

BARRAKAK

Abuztuaren 9tik 19ra

Santa Anako
parkinean

Herritarren Egúnak abuztuak 13

abuztuak 19



KON TZER TUAK

Abuztuak 17

Zutik

Xsakara

Zazpizar

Pasealekuan

Abuztuak 14

Mikosis

Addar

Urrats

Abuztuak 15

Bala

π L.T.

Mugi Panderoa

Abuztuak 16

Zea Mays

J Martina

San Juan Ibarra

Abuztuak 14

Los DelTonos

Abuztuak 16

Sepelio

Amann & The Wayward

Sons



LURGORRI SAN LORENTZOAK

Abuztuak 9
Ostirala

20:00 TXUPINAZOA eta PINTXO POTEOA, auzoan zehar

Abuztuak 10
Larunbata

09:30 **LAGUN ARTEKO MENDI MARTXA**
Santa Luzia- Arane- Trama- Esperantza- Errigoiti-
Elorreta- Santa Luzia. Umeentzako aukerako ibilbidea

MARTXA: 2 orduko ibilbidea gutxi gora- behera
Martxan izena ematea 2€

*Salida al monte para conocer los alrededores de Santa
Lucía*

Inscripción 2€. recorrido alternativo para niños y niñas

OSTEAN, parte hartzaileentzako luntxa
Después lunch para las personas participantes

12:00 **MEZA NAGUSIA**
Misa mayor

12:00 TORTILLA TXAPELKETA eta GILDA TXAPELKETA
Izen- ematea 12:00ak arte eta 13:45ean aurkezpena

Osagaiak: gutxienez 6 arrautza eta patatak (nahi duenak kipula). **Puntuaketa:** gustua, puntuan egotea eta aurkezpena. Sari bereziak

Campeonato de tortillas. Ingredientes: mínimo 6 huevos y patatas (cebolla opcional). Puntuación: sabor, el punto y la presentación.

**Kuadrila garbienari saria emango zaio
(Mesedez zaindu auzoa eta garbi mantendu)**

13:00 ERREGELAK eta DANTZAK. Elai Alai Dantza Taldea

**15:15 TORTILLA TXAPELKETAKO eta
GILDA TXAPELKETAKO SARI BANAKETA**
Reparto de premios

17:00 GAZTA JOLASA, pisua igarri, **txosnan**
GARBANTZU JOLASA, kopurua igarri, **txosnan**

17:00 ZURESKU EGURREZKO JOLASAK. Ume eta ez hain umeek jolasteko beste modu bat

19:00 SAMASIKU FANFARREA

19:00 BURUHANDIAK etat TXOKOLATADA

22:00 **MUSIKA GAUA**



**THE
USKI'S**

**ESNE
BELTZA**



**ZIRKINIK
BEZ**

**DJ
ELEPUNTO**



LURGORRI SAN

Abuztuak 11
Igandea

LORENTZOTXU

12:30 MEZA NAGUSIA Lurgorriko basilizan, auzoko hildakoen alde

Misa mayor ofrecida por los difuntos de Lurgorri

14:30 HERRI BAZKARIA. Lilibertso. Menua: paella berezia (okela eta oilaskopaella), postrea, kafea eta krianza ardoa


Prezioa: umeak 8 €, jubilatuenak 12 € eta gainontzekoak 15 €

Izena emateko: Degustación Lurgorri, Ai Ene! eta Junira tabernetan eta Errota okindegian. Abuztuak 8 baino lehen

Comida popular en la campa de Santa Lucia. Precio: niños y niñas 8 €, personas jubiladas 12 € y las demás personas 15 €

Inscripción: en los bares Lurgorri, Ai Ene y Junira y panadería Errota antes del 8 de agosto

- 16:00 XIV. MUS ARIN TXAPELKETA**
Musean: 20 euro bikoteko. Txapeldunek txapela, eta batutako diruaren 50%a; txapeldunordeek txanpan botila bat eta batutako diruaren 30%a eta hirugarrenek 20%a
Izena ematea: 15:30ean, txosnan
Campeonato de mús rápido
- 16:30 PERNIL JOLASA,** altuera igarri, **Txosnan**
- 17:00 APAR JAIA eta PUZGARRIAK,** ume zein gazteentzat, parkean, Urdaibai Eskola
- 17:00 MARIATXIAK,** Azteca taldea
- 17:30 GOTX ELEKTROTXARANGA,** auzoa girotzen
- 18:00 HERRI KIROL ERAKUSTALDIA eta umeen partehartzea,** Piratak Herri Kirol kluba
- 19:00 SALSA MUGIKORRA.** Valle la Yuma, auzoa alaitzen
- 20:00 IRRINTZI POTEOA eta LEHIAKETA.** Berbalagun




21:30 BERTSOLARIAK

Onintza Enbeita

Aitor Btxebarriazarra

Maialen Lujanbio

Ametz Arzallus



Ondoren, KONTZERTUAK:

APOKHALIPSIS



ERRETEN







BEZPIERADA

Abuztuak 14

Asteazkena



- 10:30 **XVI. NAZIOARTEKO ZESTA PUNTA
TXAPELKETAKO FINALAK Jai Alai Frontoian**
Aurrefinalak abuztuaren 11n, 12an eta 13an jokatuko dira
Finales del XVI. campeonato internacional de cesta punta



- 14:00 **XVI. NAZIOARTEKO ZESTA PUNTA TXAPELKETAREN
AMAIERA ETA SARI BANAKETA**
Euskal Jai Alai Eskola
*Final del XVI. campeonato internacional de cesta punta y
reparto de premios*

- 19:30 **SALBEA.** Elizkizuna Andra Maria elizan
Ostean Hilarión Eslavaren Salbea. Andra Mari Korala
*Salve. Acto religioso. Salve solemne de Hilarión Eslava.
Andra Mari Korala*

- 20:45 **PREGOIA**
Pregoilariak: Goizale Mendi Taldea eta
Allende Salazar Eskola Publikoa

TXUPINAZOA ETA JAITSIERA
Makazaga Alkartea eta Txaranga Txorongo

- 20:45 **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSAREN
KALEJIRA.** Gernika Rugby Taldea
Ibilbidea: Pasealekua, San Juan Ibarra eta Merkatu Plaza
Pasacalles de gigantes y cabezudos

21:00 **XAIBOR DISKO FESTA IBILTARI MUNDIALA**
Arrienetik Saraspe plazara

22:00 **Alkoholaren arriskua prebenitzeko gunea**
-
01:30 Saraspe plazan

22:00 **KONTZERTUAK** **Pasealekuan**



MIKOSIS

ADDAR



URRATS

22:30 **KONTZERTUAK** **San Juan Ibarra plazan**



**LOS
DELTONOS**




ANDREA MARI

Abuztuak 15
Osteguna



- 11:00 **DIANA**
Gazteak Taldeko txistulari eta Busturialdeko Gaiteruak
- 12:30 **MEZA NAGUSIA.** Eskolakristo Musika Alkartea.
Ostean, **ERREGELAK**, Elai- Alai Dantza Taldearen
eskutik, eta, ohiko **KOPAUA**
*Misa Mayor en la iglesia Santa María. Eskolakristo Musika
Alkartea*
*Euskal dantzak (aurreku de anteiglesia), mistela y
galletas*
- 12:30 **GARGANTUA.** Adolfo Urioste kalean
- 13:00 **EUSKAL KANTEN KALEJIRA**
Urdaibai kantagunea
EUSKAL KANTEN KALEJIRA
Arrano elkarte
- 16:30 **XLII. GOITIBEHERA JAITSIERA,** Lumotik Merkurio
iturriraino. Euskal Inertzia Koparako puntuagarria.
Oinarriak www.euskalkopa.com webgunean
Euskal Inertzia Kirolen Elkarte
XLII. bajada de goitibeheras
- 17:30 **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN
KONPARTSAREN KALEJIRA.** Gernika Rugby Taldea
Ibilbidea: Pasealekua, Juan Calzada, 8 de enero,
San Juan, Artekaleara.
Pasacalles de gigantes y cabezudos



17:30 UMEEN TXOKOA
Merkatu plazan (3-10 urte bitartekoentzat)
Urdaibai Eskola Elkartea

19:00 BERTSOLARIAK
Seber Altube Auditorioan. Lilibertso Elkartea

Julio Soto Ezkurdia
Alaia Martin Btxebeste
Nerea Ibarzabal Salegi
Koldo Gezurağa Sejido

Gai jartzailea: Ander Elortegi Garatea

22:00 KONTZERTUAK **Pasealekuan**



BALA

πL.T.



MUGI
PANDEROA



SAN ROKE

Abuztuak 16
Ostirala



- 11:00 **DIANA**
Gazteak taldeko txistulariak eta Busturialdeko Gaiteruak
- 11:00 **TXINBERA LEHIAKETA** herriko umeentzat ipar saihesbidearen azpian. 13urtetik beherakoentzako Ehiztari, Arrantzale eta Tiratzaile elkarteak
Campeonato de txinberas, bajo la variante norte
- 11:00 **MEZA NAGUSIA** Andra Maria Elizan
Eskolakristo Musika Alkartea
Ostean **"URIKO AURRESKUA"** Elai- Alai Dantza Taldearen eskutik. Ondoren, **KOPAUA**
*Misa mayor en la iglesia Santa Maria
Eskolakristo Musika Alkartea
Euskal dantzak ("aurresku de villa"), mistela y galletas*
- 12:00 **KALEJIRA.** Eingo taldea
- 12:00 **APAR JAIA** Foru Plazan. Urdaibai Eskola Elkartea
Fiesta de la espuma
- 12:30 **GARGANTUA** San Juan Ibarran
- 12:30 **"GERNIKAKO GARRAFIE" ("LIMONADIE") eta TXISTORRA DASTAKETA.** Pasealekuan
Gure Garrafie elkarteak
Degustación de "Garrafa de Gernika" ("limonada")
- 13:00 **IKURRIÑARI OMENALDIA**
EUSKAL KANTEN KALEJIRA. Urdaibai Kantagunea
EUSKAL KANTEN KALEJIRA. Arrano Kultur Elkartea

14:00 XXI. SUKALKI TXAPELKETA. Izen- ematea kazuelak aurkeztearekin batera Merkurio Iturrian (12:30- 13:30)

25 URTETIK BEHERAKOEN X. SUKALKI TXAPELKETA

Concurso de sukalki. Inscripción junto con la presentación de las cazuelas (12:30-13: 30) en frente de la Fuente de Mercurio

15:00 BAZKARI HERRIKOIA
Bazkalostean, Lilibertso taldeko bertsolari gazteak eta Trikitilariak koplak kantari mahairik mahai

Comida popular

17:30 UMEEN TXOKOA. Merkatu plazan (3-10 urte bitartekoentzat). Urdaibai Eskola Elkartea

17:30 GAZTEEN TXOKOA, FUTBOLIN TXAPELKETA eta APAR JAI BEREZIA. Foru Plazan (11-16 urte bitartekoentzat). Urdaibai Eskola Elkartea

18:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN KONPARTSAREN KALEJIRA. Gernika Rugby Taldea
Ibilbidea: Pasealekua, Juan Calzada, 8 de enero, San Juan, Artekalea

Pasacalles de gigantes y cabezudos

19:30 KONTZERTUAK San Juan Ibarra



SEPELIO



AMANN & THE WAYWARD SONS

20:30 LARRAINDANTZA HERRIKOIA
Juan Calzada kalean zehar. Elai-Alai Dantza Taldea eta
Busturialdeko Gaiteroak
Euskal dantzak (Larraindantza popular)

21:15 ESKU PILOTA PARTIDUAK Santanape Frontoian.

Bikoteak:
Agirre – Morgaetxebarria / Senar – Lizeaga

Master Caixabank Torneoa:
Artola – Rezusta / P. Etxebarria – Mariezkurrena

Partidos de pelota mano

22:00 KALEJIRA. Hamarru Elektrotxaranga.

22:30 SU ARTIFIZIALEN IKUSKIZUNA iparraldeko
saihesbidetik. Valecea Pirotecnia

Fuegos artificiales de Pirotecnia Valecea

22:30 KONTZERTUAK **Pasealekuan**



ZEA MAYS

J MARTINA



SAN ROKETXU

Abuztuak 17

Larunbata



- 12:00 **UMEEN TXOKOA eta APAR JAIA** Foru Plazan
Urdaibai Eskola Elkartea
Fiesta de la espuma
- 12:30 **KALEJIRA. Kittu taldea**
Pasacalles
- 12:30 **GARGANTUA** Adolfo Urioste kalean
- 19:00 **SAN ROKETXUKO MOZORROEN DESFILEA**
Juan Calzada kalean. Urdaibai Eskola Elkartea
Izen- ematea 18:30ean Merkurio Iturrian
Desfile de disfraces; inscripción a las 18:30 en la Fuente de Mercurio
- 20:00 **KALE ANTZERKIA** WELLCOME. San Juan Ibarra Plazan
Teatro de calle
- 20:30 **KONTZERTUAK** *Pasealekuan*



ZUTIK

XSAKARA



ZAZPIZAR

- 04:00 **KULERO, FAJA, TANGA ETA KALTZONTZILO
LASTERKETA** Merkurio Iturrian
Carrera de canzoncillos, bragas, tangas, y fajas; en la Fuente de Mercurio

SAN ROKE TXUTXU

Abuztuak 18

Igandea

11:00 **ARKU TIROKETA** erakustaldia Merkatu plazan
Gernika Arku Tiroketa Taldea
Exhibición de tiro con arco

12:00 **UMEEN TXOKOA** eta **APAR JAIA** Foru Plazan
Urdaibai Eskola Elkarte
Fiesta de la espuma



- 12:30 **GARGANTUA** San Juan Ibarran
KALERIJA Kittu taldea
Ibilbidea: Artekalea, San Juan Ibarra, Merkatu Plaza,
Barrenkalea, Juan Calzada
Pasacalles
- 17:00 **JUBILATUEN BRISKA ETA MUS**
TXAPELKETAKO FINALAK
Ostean sari banaketa, txokolatea eta **MARAN** musika
taldea
*Finales del campeonato de brisca y mus de personas
jubiladas*
- 17:30 **UMEEN TXOKOA** Merkatu Plazan (3-11 urte
bitartekoentzat). Urdaibai Eskola Elkarte
- GAZTEEN TXOKOA:** xake tailerra, bizikleta geldoen
txapelketa eta futbolen txapelketa Foru Plazan
Urdaibai Eskola Elkarte
- 18:00 **2024KO EUSKADIKO 3.MAILAKO AIZKOLARI**
TXAPELKETAKO FINALA Merkatu Plazan
*Deporte rural. Final del campeonato de Euskadi de
aizkolaris de 3. categoría 2024*
- 18:00 **GERNIKA FUTBOL KLUBAREN** aurkezpen partidua
Urbietan
Partido de presentación del Gernika Club de Futbol
- 19:30 **TXOKOLATADA** Merkatu Plazan
Urdaibai Eskola Elkarte
- 20:00 **XAIBOR DISKO FESTA SHOW**
- Eta jaiei bukaera emateko...
- 22:30 **XAIBOR** Disko Guatekea 80's & 90's helduentzako





ERRENTERIA SAN BARTOLOME

Abuztuak 22
Osteguna

17:00 **VII. Laida-Erretereria PIRAGUA ZEHARKALDIA**
VII. Travesía de piragua Laida-Erretereria

20:00 **KUKAINA eta PIRAGUEN HARRERA**
Cucaña y recepción a Piraguas



Abuztuak 23

Ostirala

17:00 **MUS TXAPELKETA**

19:30 **Erretereriako VI. ESTROPADAK**
VI. Regatas de Rentería

20:00 **TXUPINAZOA**

20:00 **SUA Erromeria**





Abuztuak 24

Larunbata

- 10:00 **DIANA**
- 12:00 **MEZA NAGUSIA**, ostean Kopaua
Misa Mayor, mistela y galletas
- 13:00 **TRIKITIXA KALEJIRA**. Kalapitaka
- 13:00 **EUSKAL DANTZAK**. Elai Alai Dantza Taldea
GARGANTUA
ERRALDOIAK / *Gigantes*
- 16:00 **LXXII. TXIRRINDULARI LASTERKETA**
LXXII. Carrera ciclista
- 20:30 **XAIBOR DISKO FESTA SHOW**


Abuztuak 25

Igandea

- 13:00 **TRIKITIXA KALEJIRA**. Kalapitaka
- 18:00 **PUZGARRIAK**
Hinchables
- 20:00 **DJ ALEX & JON**



MUSIKA



IALDEAK



J MARTINA

Abuztuak 16 Pasealekuan

J Martina pop elektronikoa lantzen duen talde nafartar-bizkaitarra da eta Kattalin eta Ane Barcena ahizpek Javier Jorajuriarekin batera osatzen dute. Pop elektronikoaren inguruan mugitzen dira, egiteko modu pertsonal bat bilatuz, estilo ezberdinetako erreferentziak somatuz. Soinu garaikideen bilaketa eta artearen disziplinartekotasuna nabaria da haien proposamenean.

J Martina es un grupo navarro-vizcaino de pop electrónico formado por las hermanas Kattalin y Ane Bárcena junto a Javier Jorajuria. Se mueven en el pop electrónico, buscando una forma personal de hacerlo, integrando también referencias de estilos diferentes. La búsqueda de sonidos contemporáneos y la interdisciplinarietà del arte es evidente en su propuesta.



MUGI PANDEROA

Abuztuak 15 Pasealekuan

2014an Eibarren, San Juan egunez, 4 lagunek sortutako erromeria taldea. Urteak aurrera joan ahala taldekideak gehitu eta, gaur egun zazpi gara; bateria, baxua, gitarra, tronpeta, tronboia, trikitixa eta panderoa. Betiko trikiti kantu klasikoak, zein gaur egungo abesti modernoagoak jotzen dituen erromeri taldea garela esan dezakegu. Beti irribarre batekin, herriz-herri, plazak dantzan jartzeko ilusioz, gogoz eta energiaz.

En 2014 se creó en Eibar, el día de San Juan, un grupo de romería formado por 4 personas. Con el paso de los años fuimos sumando integrantes al equipo, y hoy somos siete; batería, bajo, guitarra, trompeta, trombón, trikitixa y pandereta. Podemos decir que somos un grupo de peregrinación que toca canciones clásicas de Trikiti, así como canciones más modernas de la actualidad. Siempre con una sonrisa, pueblo tras pueblo, con ganas, ilusión y energía para hacer bailar las plazas.



PILT

Abuztuak 15
Pasealekuan



PILT talde Mungiarrrak, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran **Rafa Ruedak, Aitor Abiok, Xanpek, Txarlie Solanok eta David Gonzalezek** (geroago taldera batuko zena) sortua. Sona handiko ibilbidea jorratu zuen hamar urtean. Hamaika entsegu eta kontzertu kopuru zenbatezinen fruitu 5 disko luzeko uzta sendoa utzi zuten; estilo eta sonoritate anitz maisuki eta ausardiaz uztartu zituzten taldekideen izaera ezberdinen ispilu. Guzti horrek, sormen jario geldiezin eta jakin-min artistikoa lagun, **Euskal Herriko talde bizi eta bitxienetako bat** izatea ekarri zuen.

PILT, la banda de Mungia formada a principios de los noventa por **Rafa Rueda, Aitor Abio, Xanpe, Txarlie Solano y David González** (quién se une al grupo más adelante) forjaron una trayectoria por muchos conocida a lo largo de una década. Incontables horas de ensayos e innumerables conciertos tuvieron como resultado una discografía sólida de cinco discos que mezclaba sin rubor estilos y sonoridades diversas, creando un fiel reflejo de las cinco personalidades que formaban el grupo. Todo ello envuelto en una creatividad imparable y una curiosidad artística que les hizo convertirse en una de las bandas más activas y originales de la escena musical vasca.

ZAZPIZAR

Abuztuak 17
Pasealekuan

2022 amaieran sortutako 8 kide gaztez osatutako erromeria talde Gernikarra da. **Euskal Herriko talde ezagun eta maitatuen kanta klasiko eta modernoak eskaintzen dituzte, pop/rock-a, kantu herrikoiak, punk-a edota ska bezalako soinuekin jorratua.** (Elena Ojanguren ahots eta trikitixan, Ander Akordagoitia baterian, Iker Aranaz eta Ibai Bengoa gitarran, Iban Hernandez baxuan, Irati Zabala teklatuan, Ander Ansotegi saxofoian eta Beñat Zobaran Tronpetan).

Grupo de romería de Gernika compuesto por 8 miembros jóvenes creado a finales de 2022. Ofrecen canciones clásicas y modernas de grupos conocidos y queridos de Euskal Herria. (Elena Ojanguren en voz y trikitixa, Ander Akordagoitia en batería, Iker Aranaz e Ibai Bengoa en guitarra, Iban Hernandez al bajo, Irati Zabala en teclados, Ander Ansotegi al saxofon y Beñat Zobaran en la trompeta).



ADDAR

Abuztuak 14
Pasealekuan

Addar taldea Bermeon sortu zen 2018an. Taldea Gorka Padronesen (Zona Cero, Sinnerdolls, Tutiliklas) euskarazko Rock&Roll taldea sortzeko grinatik sortu zen. Proiektu batzuetako taldekide eta lagunak ondoan izango ditu, Imanol Rodriguez (Zona Cero, Radio Guerrilla, Galarren), Mikel Omagogeaskoa eta Beñat Aurre(Zartada), hain zuzen. Addarren oinarri sendoak energiaz beteriko Rocka ematen dute. Beraien abestietan, sistemari kritika, zekenkeria, egozentrismoa, pasioa, beldurra edo esperantza bezalako kontzeptuak nabariak dira.

El grupo Addar se fundó en Bermeo en 2018. El grupo nace de la pasión de Gorka Padrones (Zona Cero, Sinnerdolls, Tutiliklas) por crear un grupo de Rock&Roll Vasco. Para llevar a cabo este proyecto contará con sus compañeros y amigos de otros proyectos, como Imanol Rodriguez (Zona Cero, Radio Guerrilla, Galar), Mikel Omagogeaskoa y Beñat Aurre (Zartada). Los sólidos cimientos de Addar proporcionan un Rock enérgico. En sus canciones quedan patentes conceptos como la crítica al sistema, la ignorancia, el egocentrismo, la pasión, el miedo o la esperanza.



Abuztuak 15
Pasealekuan

BALA



Bala talde galiziarrek 2014. urtearen erdialdean hasi zuen bere ibilbidea. Bikoteak 90eko hamarkadako rock bizia gogorarazten duten soinuak uztartzen ditu, grungetik stoner, hardcore edo punkaren bitartez eta bi ahots oso ezberdinen indarrekin.

Las gallegas Bala comienzan su viaje a mediados de 2014. El dúo combina sonidos que recuerdan al rock intenso de los 90, con influencias que van desde el grunge al stoner, pasando por el hardcore o el punk y con la contundencia de dos voces muy distintas.



ZETA MAYS

Abuztuak 16
Pascualekuan

Bilbon, 1997ko ekainean Asier Basabek (bateria), Ruben Gonzalezek (baxua), Iñaki Imazek (gitarra) eta Aiora Renteriak (ahotsa) sortu zuten taldea.

Banda formada en Bilbao en junio de 1997 por Asier Basabe (batería), Ruben Gonzalez (bajo), Iñaki Imaz (guitarra) y Aiora Renteria (voz).

SEPELIO

Abuztuak 16
San Juan Ibarra



Sepeliok bluesa, soul eta southern rockera ekartzen ditu. Soinu klasikoa, aniztasun erritmikoa eta letretako mezu positiboa nabarmentzen dira, New Orleanseko bluesaren sehaska bereko musikaren oinordeko zuzen indartsu batean.

Adi entzuteak beste generoen sakontasuna ezagutzeko aukera ematen du: Sam eta The Pharaosen rock 'n roll erritmo kutsakorretik Neil Youngen rock energetikoraino, R&B psikodelikoaren eta Purpleren hard rockaren, ZZ Top-en Tex-Mex musika edo Midnight Oil-en rock alternatibotik igaroz. Sepeliok taldearen zuzeneko asmoa eta jarrera argi uzten duten 10 abestiz osatutako bere argitaragabeko lana aurkeztuko du gaur. Soinu zoragarritz betetako dantzarako gonbidapena.

Sepelio bebe del blues, soul y el rock sureño. Su sonido clásico, la variedad rítmica y el mensaje positivo de sus letras destacan en un poderoso directo heredero de la música proveniente de la misma cuna del blues, Nueva Orleans.

Una escucha atenta permite descubrir el calado de otros géneros, desde el ritmo contagioso del rock n roll de los Sam and The Pharaos al rock energético de Neil Young, pasando por la fusión mercurial de R&B psicodélico y hard rock de los Purple, la música tex- mex de ZZ Top o el rock alternativo de Midnight Oil. A día de hoy, Sepelio presenta su trabajo inédito conformado de 10 canciones que dejan claras la intención y la actitud de la banda en directo. Una invitación al baile repleta de sonidos irresistibles.

AMANN & THE WAYWARD SONS

Abuztuak 16
San Juan Ibarra



AMANN & THE WAYWARD SONS 2016an sortutako rock talde bat da, Pablo Amann (SLOCUM) konpositorearen proiektu pertsonal gisa jaio zena. Bere zuzeneko emanaldi indartsuaren oihartzunek, 2019ko ekainean, BBK LEGENDS FESTIVAL ospetsuan jotzera eramán zuten, besteak beste, BEN HARPER, THE BEACH BOYS, SUZANNE VEGA edo LITTLE STEVENen mailako artisten artean.

AMANN & THE WAYWARD SONS es una banda de rock, fundada en 2016, que nace como proyecto personal del compositor Pablo Amann (SLOCUM). Los ecos de su potente directo les llevan, en Junio de 2019 a tocar en el prestigioso BBK LEGENDS FESTIVAL, entre artistas de la talla de BEN HARPER, THE BEACH BOYS, SUZANNE VEGA, o LITTLE STEVEN entre otros.

Abuztuak 17 Pasealekuan

Hasiera batean, erromeria single bat garela iruditu arren, barrutik beste era batera ikusten dugu geure burua. Zutik erromeriaren erreperitorioan, garai eta estilo ezberdinetako abestiak aurkituko dituzue. Beti ere, entzulegoarentzat ezagunak direnak. Baina, abesti horiek jotzerako orduan, gure esentzia islatzen ahalegintzen gara, eta orain arte ezagunak zaizkizuen abestien moldaketaren bat entzutean, burura Zutik Erromeria garela datorkizuelarik.

A pesar de que asimile vista parezcamos un simple grupo de erromeria, nos autopercebimos de otra manera. En el repertorio de Zutik, encontrarás canciones de diferentes épocas y estilos. Siempre, aquellas que resulten familiares al público asistente. Pero, cuando se trata de tocar esas canciones, tratamos de reflejar nuestra esencia, y cuando escuchas alguna de esas canciones que te son familiares con los arreglos de nuestra mano, sabrás que estas escuchando la música de Zutik.

ZUTIK



Abuztuak 14 San Juan Ibarran

LOS DELTONOS



Covid-en eragin suntzitzaileari ahalik eta ondoen bizirik atera ginela, Los DelTonosen barruan aldaketa haizeak sumatu ziren. Behin okerreña amaituta, taldea, denbora luze baten ondoren, boterezt betetako hirukote bat izatera itzuliko zen. Javi Ariaz bateria- jolearekin batera taldearen bihotz erritmikoa bultzatuko zuen pieza berria izango zen Sergio Rodriguez eta Hendrik Rover, bere aldetik, gitarra guztien arduraduna izateaz gainera, ironia finez, eskutuko kritikaz eta umorezt betetako testuak abestuko ditu. Taldeak bere burua berrasmatu zuen jatorrizko formulara itzuliz.

Mientras sobrevivíamos como podíamos al devastador efecto del Covid, en el seno de Los Deltonos se iban intuyendo vientos de cambio y una vez pasado lo peor, el grupo iba a volver después de mucho tiempo a ser un power trio en toda regla. Sergio Rodríguez sería la nueva pieza que junto con el batería Javi Arias impulsarían el corazón rítmico del grupo y Hendrik Rover, por su parte, se encargaría de todas las guitarras y de cantar esos textos cargados de fina ironía, crítica soterrada y toneladas de sentido del humor. El grupo se reinventaba volviendo a la fórmula original.



MIKOSIS

**Abuztuak 14
Pasealekuan**

2021ean lau neskak sortutako proiektu batetik jaiotako taldea da Mikosis; Garazi (bateria), Carla (baxua), Maite (ahotsa) eta Ane Meik (gitarra) osatua.

Post-punk eta alternatibotik ere edaten duen rock talde bat. Galdute izeneko lehen single-arekin beraien proiektu berri honi hasiera indartsua eman nahi diote, etorkizun hurbilean etorriko denari bidea irekiz.

Mikosis es un grupo que nace de un proyecto creado por cuatro chicas en 2021; Formado por Garazi (batería), Carla (bajo), Maite (voz) y Ane Mei (guitarra).

Un grupo de rock que también bebe del post-punk y lo alternativo.


Con el primer single llamado Galdute quieren dar un comienzo fuerte a su nuevo proyecto, abriendo el camino a lo que vendrá en un futuro próximo.

XSAKARA

Abuztuak 17
Pasealekuan

12 urte zituenetik da rap musikaren jarraitzailea, eta 15 urterekin C.O.D. taldean hartu zuen parte. [3] 2019an atera zuen aurreneko diskoa, “Bihotzarantzako pilulak” eta, hurrengo urtean, bigarrenena “Ilargiaren semea 16 19”. 2022an Lurrikarak EP laburra kaleratu zuen eta 2023an Lurrikarak 2.0 EP laburra. Bere azken albuma argitaratu zuenetik 4 urte pasatu ostean, 2024. urtean “Ilargiaren Semea” kaleratu du.

Es fanático de la música rap desde los 12 años y a los 15 se unió a C.O.D. Participó en el grupo. Lanzó su primer disco en 2019, “Heart Pills” y, al año siguiente, su segundo “Ilargiaren semea 16 19”. En 2022 lanzan el EP corto Lurrikarak y en 2023 el EP corto Lurrikarak 2.0. Luego de 4 años desde el lanzamiento de su último disco, en 2024 se lanzó “Son of the Moon”.



Abuztuak 14
Pasealekuan

URRATS



Inhar Endaya, Xabier Sarasketa, Endika Basterretxea, Xabier Ugarteburu eta Leire Gotik osatzen dute Urrats. Erromeria munduan hasi zen Urrats, eta hazten joan da urteen baitan. Betidanik eskaini nahi izan dute erromeria hutsetik aldentutako erreperitorio alternatiboa, beti ere euskal rock eta pop doinuak sakonduta. Publikoaren animoez indartuta, 10. urteurrenara iritsi dira.

Formado por Inhar Endaya, Xabier Sarasketa, Endika Basterretxea, Xabier Ugarteburu y Leire Goti, Urrats se inició en el mundo de la romería, y ha ido creciendo con el paso de los años. Siempre han querido ofrecer un repertorio alternativo, alejado de la simple romería, profundizando siempre en el rock y el pop vasco. Fortalecidos por el estímulo del público, han llegado a su décimo aniversario.



OINARRIAK



Abuztuak 16

Ostirala

SUKALKI

TXAPELKETA

OINARRIAK

1. Sukalkia derrigorrez prestatu behar da kalean, kuadrilla bakoitza kokatuta dagoen lekuan.
2. Kazolen neurria: sei lagunentzako, gutxienez.
3. Osagaiak: behi-okela (zankarroia, lepoaldea edo falda), patata, tomatea, kipula, pipergorria, azenarioa, ilarrak, olioa eta gatzia.
4. Kazolak Merkurio iturriaren inguruan aurkezteko unean emango da izena. 12:30etik 13:30era.
5. Kazolak atzera hartzea: epaimahaikoak dastatu ostean, sari banaketa 14:00etatik aurrera.

Aurkezten diren lehen 40 kazolek ardo botila bat izango dute opari aurkezteko unean.

SARIAK

	Kategoria orokorra	25 urtetik behera
1. Saria	Txapela, 250€ eta Magnum tamainako ardo botila.	Txapela eta 150€
2. Saria	150€ eta Magnum tamainako ardo botila.	100 €
3. Saria	100€ eta Magnum tamainako ardo botila.	75 €
4. Saria	4.etik 20.era ardo botila bana jasoko dute	

Epaileak: Marije Uranga, Olatz Aberasturi,
Koldo Azarosa eta Patxi Bilbao.

FUTBOLIN TXAPELKETA

Abuztuak 16/18
Ostirala eta
igandea

OINARRIAK

1. 11 eta 16 urte bitarteko bi gaztek osatuko dute bikote bakoitza.
2. Gazte bakoitzak ezin izango du bikote baten baino gehiagotan izena eman.
3. Txapelketak gehienez 32 bikote izango ditu.
4. Izena emateko bikotearen fitxa bete beharko da.
5. Izen-ematea ordena zorrotzean izango da, 32 bikoteak bereiztuta.

FASEAK

1. FASEA


Talde bakoitzeko lehenengo biak sailkatuko dira bigarren faserako.

2. FASEA

Kanporaketa zuzenaren bidez final zortzirenak, laurdenak eta finalaurrekoa.

SARIAK

Irabazleentzako sari bereziak eta partaideentzako sorpresak.



MOZORROEN DESFILEA

Abuztuak 17
Larunbata

ONARRIAK

1. Izen-ematea egunean bertan izango da 18:00etatik 19:00etara.
2. Partaideek mozorrotuta eta antolakuntzak agindutako ordenean igaro beharko dute ibilbidea.
3. Ez dago ibilbidea korrika egiterik eta aintzat hartuko da grazia eta estiloz egiten duen pertsona edo taldea. Koreografiak eta antzerkiak asko baloratuko dira.
4. Ibilbideak gutxi gora behera 3,5m-ko zabalera izango du.
5. Antolakuntzaren esku egongo da partaideak onartu ala ez; mozorroa benetakoa izan beharko da eta mozorrotzat hartua izateko nolabait landua egon beharko da.
6. Antzetzeko norberak ekarritako CD, mp3 edo pendrive formatuko musika onartuko da.
7. Ibilgailuak, karrozak eta era anitzeko tramankuluak onartuko dira baina landuak izateaz gain, ibilbiderako aproposak izan beharko dute.



VII. LAIDA ERRETERIA

Abuztuak 22
Osteguna

PIRAGUA ZEHARKALDIA

OINARRIAK

1. Zeharkaldia Laidako hon-dartzan hasiko da eta Erreteriako zubian bukatu.
2. Arratsaldeko 17:00etan aterako da autobusa Idigatik (Erreteriako zubitik) eta Laidaraino eramango zaitu.
3. Bertan, begirale batzuek gidatuta zeharkaldia egingo duzu.
4. Iraupena 2 ordukoa izango da.
5. Ez da sailkapenik egongo.

PREZIOA

Piragua alokatu behar baduzu: 25 € pertsonako.

Piragua baten jabe bazara: 15 € pertsonako.

IZEN-EMATEA

Twente tabernan (San Bartolome 2, Erreteria).

Partaide muga: 55 pertsona.



Abuztuak 22 Osteguna

IZEN-EMATEA

Froga hasi baino 10 minutu lehenago.

Proba hasi ostean, ez da izena emateko aukerarik egongo.

SARIAK

1. Saria (Azpiko ikurrina) 100 €.
2. Saria (Ezkerreko ikurrina) 80 €.
3. Saria (Eskumako ikurrina) 50 €.

KUKAINA

OINARRIAK

1. 14 urtetik gorako neska mutilentzat.
2. Partaide bakoitzeko 10 €ko dieta.
3. Partaide bakoitzak ikurrina/ sari bat baino ezin izango du jaso, antolakuntzak jardueraren arabera besterik erabaki ezean.

MUS TXAPELKETA

Abuztuak 23 Ostirala


SARIAK

1. Saria Txapela eta izen-ematetik jasotako diruaren %50a.
2. Saria Izen-ematetik jasotako diruaren %25a.
3. Saria Izen-ematetik jasotako diruaren %15a.
4. Saria Izen-ematetik jasotako diruaren %10a.

IZEN-EMATEA 16:30
20 € bikoteko

HASIERA 17:00





GERNIKA 1935